

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Amurrioko Udaleko 2021eko langileen plantilla organikoa aldatzea

Amurrioko Udaleko langileen 2021eko plantilla organikoa 2021eko maiatzaren 19ko ALHAOn argitaratu zen. Udalbatzak, 2021eko uztailaren 29an egindako bilkuran, aldatzea erabaki zuen, gaikuntza nazionaleko funtzionarioentzat gordetako diruzainaren plaza sortzeko.

Iragarki hau ALHAO argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita espediente hau hamabost egun baliodunez egongo da jendaurrean, egoki irizitako erreklamazioak aurkez daitezten. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko erabaki hori behin betiko onetsizat joko da, eta ALHAOn argitaratuko da.

Amurrio, 2021eko uztailaren 30a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA